


Irujo kontseilariak IED enpresari eman dio Nafarroako Arizmendiarieta Sariaren IV. garaikurra

Epaimahaiak berrikuntza elektronikoaren bikaintasunarekiko eta ikuspegiarekiko konpromisoa nabarmendu du, efizientziaren eta jasangarritasunaren bidez

Ostirala, 2024ko Maiatzaren 24a



 Irujo kontseilariak IEDko Iñigo Ayerrari eman dio Arizmendiarieta Saria, Juan Manuel Sinde, Arizmendiarieta Fundazioko presidentea bertan dela.

Mikel Irujo Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak Arizmendiarieta Nafarroa saria eman dio gaur goizean IED enpresari. Enpresa-kudeaketaren bikaintasuna eta berrikuntzarekiko, jasangarritasunarekiko eta langileen parte-hartzearekiko konpromisoa saritzen dituzten sarien laugarren edizioa da.

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak babestutako sari ospetsu honek enpresa-kudeaketaren bikaintasuna hala nola berrikuntzarekiko, jasangarritasunarekiko eta langileen parte-hartzearekiko konpromisoa nabarmentzen ditu.

Saria emateko ekitaldian Irujo kontseilariak IED zoriondu du “1993tik egiten ari diren lanagatik eta egunerokoan praktikan jartzen dituzten balio guztiengatik”. Horrez gain, Irujok nabarmendu du “aita Arizmendiarietaren proiektuak indarrean jarraitzen duela gaur egun. Proiektua testuinguru oso zail batean sortu zuen, erial ekonomiko batean hura eraikitzen hasi zen, pertsona erdigunean jarrita zuela. Beti jarri zuen pertsona ekonomiaren erdigunean”.

Bestalde, Iñigo Ayerra IED-eko CEO-ak eskerrak eman nahi izan dizkie “IED-eko talde osoari, nire familiari eta Arizmendiarieta Fundazioaren bultzadari eta anbizioari, zeinen nahia den Nafarroako enpresak gero eta hobeagoak izatea”. “Garrantzitsua da hainbat eremutan aintzatespena jasotzea eta hemen aintzatespena harrotasuna da, enpresetan kultura osasuntsua eta jasangarria izateagatik”, erantsi du. Gainera, saria jasotzean, Ayerrak balioa eman dio “enpresek duten bizitza betea izateak duen garrantziari, kontziliazioarekin, balioekin, entzute aktiboarekin eta lankidetzakulturarekin”.

Amaitzeko, Juan Manuel Sindek, Arizmendiarieta Fundazioko presidentea, IED zoriondu du eta “epaimahaiakide izan diren 12 pertsoneri ere eskerrak eman dizkie, enpresa irabazlearen ebaluatutako arlo guztietan bikaintasunarekiko aparteko konpromisoa nabarmendu dutelako”.

Sari honetarako guztira 34 hautagai aurkeztu ziren zein Foru Komunitateko erakunde publiko eta pribatuen ordezkari den epaimahai independente batek baloratu zituen. Epaimahaiak nabarmendu duenez, “IEDK aparteko konpromiso bat jarri du agerian bikaintasunarekin, epaimahaiak ebaluatutako arlo guztietan”. Bikaintasunerako Nafarroako Fundazioaren bidez egindako ebaluazioak adierazten dutenez, “berrikuntza elektronikoan duen ikuspegiagatik eta eraginkortasuna zein jasangarritasuna bultzatzen dituzten irtenbideen bidez industria-sektoreari egiten dion ekarpenagatik nabarmentzen da enpresa”.

Goi mailako prestakuntza duen talde batekin eta lankidetzan zein barne-lidergoan oinarritutako kultura korporatiboarekin, “IEDK hazkunde sendoa eta dibertsifikatua lortu du geografia- eta industria-mailan”.

Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioak egindako ebaluazioak IED-ren lorpenak lau ardatz nagusietan nabarmendu zituen:

- Enpresaren kudeaketa eta kultura: Enpresak gardentasunean, konfiantzan nahiz lankidetzan oinarritutako kultura korporatibo sendoa erakutsi du, pertsonengan eta barne-talentuaren garapenean oinarritutako ikuspegi duena.

-
- Proiektu partekatua: IEDk epe luzerako proiektu partekatu bat ezarri du, alderdi interesdun guztiei mesede egingo diena, berrikuntza eta hazkunde jasangarria sustatuz.
 - Proiektu parte hartzailea: Langileek enpresaren kudeaketan eta emaitzetan aktiboki parte hartzea izan da enpresaren arrakastaren funtsezko oinarria, maila guztietan konpromisoa eta inplikazioa sustatuz.
 - Inpaktu soziala: Enpresak kezka handia erakutsi du bere jarduerak gizartean duten eraginari buruz, eta konpromiso aktiboa hartu du bere gain inguruko arazo sozialetarako irtenbideak bilatzeko.

Azkenik, epaimahaiak bere "kudeaketa eta kalitate sistema aurreratuak eta gardentasun politikak baloratu ditu. Langileen gogobetetasun- eta konpromiso-maila altuak, laneko giroari eta ko-sorkuntzari buruzko inkesten bidez neurtuak, pertsonengan oinarritutako ikuspegiaren arrakastaren adierazgarri dira".